

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3109

EBAZPENA, 2017ko ekainaren 8koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2017ko deialdia egiten duena.

Ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren bidez arautzen da Elkarrekin Bonuak Programa, hots, bakearen, giza eskubideen, indarkeriarik ezaren eta printzipio demokratikoen sustapena sustatzeko ekimen osagarri bat. Programaren helburu nagusia da elkarte-sarearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzak-ekintzak ugaritzea, hain zuzen ere bizikidetzak- eta adiskidetze-kultura sendotze aldera.

Programa horren bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

Horren haritik, dekretu horren 5. artikuluan hiru laguntza-ildo biltzen dira, eta horietako bat hezkuntza-arloan garatzen diren proiektuak finantzatzera bideratuta dago. Hain zuzen ere, laguntza-ildo hori gauzatzeko egiten da deialdi hau, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.

Aipatutako dekretuaren 7. artikuluan arabera, laguntzak emateko deialdia urtero egingo da, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta deialdiak honakook jasoko ditu: deialdiaren xedea, diru-laguntzaren ildo bakoitzerako zuzkidura, bonuen zenbatekoa, proiektuen erakunde hartzaileek eman beharreko gutxieneko zenbatekoa, eskabideak aurkezteko tokia eta epea, eskabide-eredu normalizatu bat, diru-laguntzak justifikatzeko epea eta modua eta, hala dagokionean, bide elektronikoak erabiltzeko prozedura eta jarraibideak.

Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonoak Programaren 2017ko deialdia egitea.

2. artikulua.– Denbora-eremua.

2017ko ekitaldian garatu beharko dira bonoen eskaera eragiten duten proiektuak, eta, nolanahi ere, 2017ko abenduaren 31n amaituta egon beharko dute.

3. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Programa honetarako 350.000 euro bideratuko dira. Funts hori honela osatu da: Hezkuntza Sailak 100.000 euroko ekarpena egin du, eta Lehendakartzak, 250.000 eurokoa.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak eta hartzaileak.

1.– Elkarrekin Bonuak Programaren onuradun izango dira irabazi-asmorik gabeko erakundeak, bake eta bizikidetzak gaian aritzen direnak. Erakundeok Euskal Autonomia Erkidegoko

Fundazioen Erregistroan inskribatuta behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoa izan behar dute jardun-eremu, eta ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuan ezarritako baldintzak bete.

2.– Hezkuntza-arloko proiektuen hartzaileak ikastetxeak izango dira.

5. artikulua.– Bonuen zenbatekoa eta gehieneko muga.

1.– Hezkuntza-arloko bonuak 70 eurokoak izango dira, justifikatutako prestakuntza- edo dinamizatzeko-zerbitzuko ordu bakoitzeko.

2.– Proiektuen erakunde hartzaileek gutxienez onartutako bonuen % 10 ordaindu beharko diote erakunde onuradunari.

3.– Ikastetxe batek ezingo ditu 5.000 eurotik gorako bonuak metatu.

4.– Laguntzek honako lege honi atxikita daude: Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamendua, Europar Batasunaren minimis laguntzen funtzionamendu itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa (EBAO L 352, 2013-12-24). Laguntza hauek minimis motako laguntzat jotzen dira; izan ere, pertsona fisiko edo juridiko jakin bati emandako laguntzaren guztizkoak ez du gaindituko 200.000 euroko kopurua, aurreko bi ekitaldi fiskaletakoa eta aurtengoa batuta. Ulertzen da muga horretatik beherako diru-laguntzek ez diotela merkataritzari eragiten eta ez dutela lehiakortasuna faltsutzen; horren ondorioz, ez dira sartzen Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107.1 artikuluen aplikazio-eremuan.

6. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta emakida-deialdi honetan jasotako gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoen bidez egingo dituzte erakunde interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluen arabera.

2.– Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak egoitza elektronikoa honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/laguntza/2017/elkarrekin-bonuak-hezkuntza/y22-izapide/eu>

Eskabidearen ondorengo izapideak helbide elektronikoa honetan egingen dira: <https://euskadi.eus/nirekideaketak>

7. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, 2017ko urriaren 16ra bitartean, non eta funtsak ez diren egun hori baino lehen amaitzen. Hala bada, dekretu arautzailearen 5.3 artikuluan ezarritakoa betez, gertaera horren berri emango da Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpen baten bidez, eta atzera botako dira ebazteke dauden diru-laguntza guztiak.

8. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidea, erantzukizunpeko adierazpenak barnean dituela, inprimaki arautuan egin beharko da, zeina euskadi.eus egoitza elektronikoa baitago eskuragarri. Eskabidearekin batera, ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

9. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Balorazio-batzorde bat eratuko da. Hona kideak:

- Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, batzordeburu.
- Marian Sanchez Amado, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria, idazkari.
- Goizargi Cano Ormazabal, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikaria, batzordekide.
- Fernando Muga Villate, Berritzegune Nagusian Elkarbizitzaren arloko arduraduna, batzordekide.

10. artikulua.– Ebazpenak jakinaraztea.

Erakunde onuradunei eta erakunde hartzaileei jakinaraziko zaizkie laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak.

11. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzeko epea eta modua.

1.– Eskaerak aurkezteko epea 2017ko abenduaren 31n bukatuko da.

2.– Erakunde onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzan diru-laguntza zertan erabili duten justifikatzeko:

a) Proiektu bakoitza gauzatu dela egiaztatzen duten agiriak: programen kopiak, kartel iragarleak, argazkiak eta argitaratutako gainerako material grafikoa, idatzizkoa edo entzunezkoa.

b) Egindako proiektuen memoria xehea, datu hauek aipatzen dituen: zer egunetan gauzatu den proiektua, nor diren proiektuan parte hartu duten pertsona onuradunak (sexuaren arabera bereziak), nola txertatu den generoaren ikuspuntua, eta zein den azken balorazioa.

c) Ikastetxearen ziurtagiria, proiektuan zenbat pertsonak parte hartu duen jasoko duena.

3.– Eskaerak modu elektronikoa aurkeztu beharko dira euskadi.eus egoitza elektronikoa: <https://euskadi.eus/nirekudeaketak>. Aurreko puntuan adierazitako agiriak eskaneatuta eta elektronikoki sinatuta aurkeztuko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan arautu gabe dagoen guztian, prozeduraren arloan, hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 110/2014 Dekretua, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onartzekoa; 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erke-degoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duena; arau horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan aplikatzekoak baitira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez dezakete Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren idazkaritza Nagusian, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean ebazpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 8a.

Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria,
MÓNICA HERNANDO PORRES.